

También el 24 de noviembre, Amnistía Total

KARLOS EZKURRA LEONET, IÑAKI EGILUZ SAGASTIZABAL, ARMANDO ZABALO BILBAO, MIKEL ALBERDI ZUBIZARRE :: 14/11/2018

Hay quien sigue pensando que hay suficientes razones por las que luchar. Con esas y esos estaremos en las dinámicas que se implementen por la emancipación nacional y social .

Azaroaren 24an ere, Amnistia Osoa

Lehenengo eta behin gure agurrik beroena, independentzia eta sozialismoaren aldeko borrokan jarraitzeko Euskal Herrira itzuli ezinik zabiltzaten kide guztiontzat (preso, deportatu nahiz iheslariak). Hortik aurrera, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren helburu historikoei uko egin ez dietenengana eta borrokan hasten diren belaunaldi berriengana zuzentzen gara batez ere.

Jakin badakigu Euskal Herritik kanpo dauden euskal errepresaliatuek eta bertan bizi direnek (gutxi badira ere) mota desberdineko zapalketa politikoa pairatzen dutela, gehienek bizi baldintza duinen gabezia handiarekin. Jakitun gara ere borrokak desgaste fisiko, psikiko eta mentala dakarrela, ia 34 urteko kartzelaldia pairatzen ari diren eta beste horrenbeste, edo gehiago, iheslari gisa dabilzan kasuaz ari gara.

Gauza jakina da, egoera horren barruan, errepresaliatuek jarrera politiko desberdinei eusten dizkietela. Gure iritzirako, bada errendizioaren, damuaren eta abarren uretan nabigatuko ez duenik.

Era berean, bada Ezer Abertzale Ofizial eta Erreformistaren tesiekin bat datorrenik, nahiz eta jakitun izan Espainiak, behin eta mila bider aipatu bezala, ez dituela EPPK-k planteaturiko marra goriak (damua edo delazioa) gaindituko, izan ere, kondenak bete aurretik euskal preso politikoak aske gera daitezen, Estatuak inposaturiko baldintzen zati bat dira.

Halaber, jakina da zenbait euskal preso politiko EPPK-tik kanpo daudela, espetxe ildoarekin eta ildo politiko erreformistarekin bat ez datozelako.

Adinekoak edo gaixo daudenak berehala aske uztea aldarrikatzen da, euren jarrera politikoa edozein dela ere.

Une erabakigarrietan bizi gara, eta argi hitz egin beharra daukagu. Behin ETaren errendizioa eta estatu okupatzaileekiko Sorturen atxikitzea nahiz men egitea ikusitakoan, errealitatea da preso, iheslari eta deportatuak, "gerra" horri dagokionez, ezer jakin nahi ez izatea. Bada, hor dago. Nor bere kasa.

Bestalde, bada borrokatzeko nahikoa arrazoi daudela pentsatzeari eusten dionik, eta halako jendea izango dugu bidelagun Euskal Herriaren nazio eta gizarte emantzipazioaren alde inplementatzen diren dinamiketan. Ez izan inolako zalantzarik.

Horregatik guztiagatik eta gehiagotatik, Bilboko Jesusen Bihotza plazan, arratsaldeko 18:00etan, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak, Gudariak direlako Amnistia Osoa goiburupean, deitutako manifestazioan bertaratzea eskatzen dizuegu.

Gudariak dira ez terroristak.

Amnistia osoaren alde, hau da, Euskal Herriaren Independentzia eta Sozialismoaren alde.

Sinadurak:

- Karlos Ezkurra Leonet,, Iñaki Egiluz Sagastizabal, Armando Zabalo Bilbao, Mikel Alberdi Zubizarreta, Jon Iurrebaso Atxutxa

También el 24 de noviembre, Amnistía Total

En primer lugar saludamos a los y las compañeras presas, deportadas y huidas que continuáis sin poder volver a Euskal Herria para seguir combatiendo por la Independencia y el Socialismo de nuestra nación. De ahí en adelante, nos dirigimos sobre todo a los y las que no han renunciado a esos objetivos históricos del MLNV y a las nuevas generaciones que se están incorporando a este combate.

Sabemos que las y los represaliados vascos y vascas que están fuera de Euskal Herria, y los pocos que están en Euskal Herria, padecen diferentes situaciones de opresión política y, en su gran mayoría, carecen de condiciones de vida mínimamente dignas. Sabemos también, que la lucha genera desgaste físico, psíquico y mental. Estamos hablando de casos de hasta 34 años de cárcel y otros tantos, o más, en calidad de huidos/as.

Es público que, dentro de toda esa situación, hay diferentes posturas políticas dentro del ámbito de los represaliados. Pensamos que hay quien no navegará en las aguas de la rendición, del arrepentimiento, etc.

También hay quien comparte las tesis de la Izquierda Abertzale Oficial y Reformista aún sabiendo que España ha repetido mil veces que las líneas rojas que EPPK afirmó no traspasará, como el arrepentimiento o la delación, son parte de las condiciones que el Estado impone para la puesta en libertad de los presos/as políticos/as vascos/as antes de que cumplan sus condenas.

Asimismo es sabido que hay presos y presas políticas vascas que no están en EPPK porque no comparten ni su línea penitenciaria ni su reformista línea política.

Los hay a quienes se les reivindica su inmediata puesta en libertad, aparte de la posición política que tenga cada cual, por motivos de edad y enfermedad.

En estos momentos tan cruciales que estamos viviendo, pensamos que tenemos que ser claros. Es una realidad que el preso/a, huido/a, deportado/a, que una vez vista la rendición de ETA y la inserción y sumisión de Sortu a los Estados que nos ocupan, no quiera saber

nada más de la “guerra”. Pues ahí está. Cada una a lo suyo.

También hay quien sigue pensando que hay suficientes razones por las que luchar. Con esas y esos estaremos en las dinámicas que se implementen por la emancipación nacional y social de Euskal Herria. Que no os quepa ninguna duda.

Por todo esto y más, os pedimos que acudáis a la manifestación que bajo el lema Gudariak direlako Amnistia Osoa ha convocado el Movimiento por la Amnistía y contra la Represión en Bilbo, Plaza del Sagrado Corazón, el próximo 24 de noviembre a las 18 horas.

Son gudaris, no terroristas.

Por la amnistía total, es decir, por la Independencia y el Socialismo para Euskal Herria.

Firman:

Karlos Ezkurra Leonet, Iñaki Egiluz Sagastizabal, Armando Zabalo Bilbao, Mikel Alberdi Zubizarreta, Jon Iurrebaso Atxutxa

<https://eh.lahaine.org/tambien-el-24-de-noviembre>